

16/2022 Foru agindua, urtarrilaren 18koa, zeinaren bidez arautzen baitira TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako foru agindu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru aginduaren eta bere eranskinen zenbat eduki aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

Azaroaren 6ko 3/2020 Foru Arauak, iruzur fiskala eragozteko lanabes teknologikoak erabili beharra ezartzen duenak, TicketBAI obligazioa betetzea ezarri zuen hainbat zergadunentzat, alegia, sozietateen gaineko zergaren, jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta establezimendu iraunkor bidez errentak lortzen dituzten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunentzat.

Geroago, abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuak, TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onartzen duenak, betebeharraren erregulazioa osatzen duen erregelamenduzko garapenari ekin zion, eta, era berean, ezarri zuen TicketBAI softwareak bete behar dituen zehaztapen tekniko eta funtzionalak Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onetsiko dituela foru agindu bidez. Erregulazio hori gauzatzeko, abenduaren 23ko 521/2020 Foru Agindua onetsi zen, zehazki, TicketBAI Softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitortpena arautzen dituenak.

Horrela, aipatutako erregelamenduaren III. kapituluko 2. sekzioan arautzen den TicketBAI fitxategiaren bidalketari dagokionez, 14. artikuluen 3. apartatuak dio Zerga Administrazioak TicketBAI fitxategiak errefusatu ahal izango dituela, baldin eta erregelamendu honetan eta hura garatzeko onartutako zehaztapen tekniko eta funtzionaletan jasotako beharkizunak betetzen ez badituzte. Kasu horretan, errefusatutako fitxategiak zuzendu egin beharko dira.

Bada, foru agindu honen bidez arautzen dira errefusatu diren TicketBAI fitxategiak zuzentzeko bidaltzen diren fitxategien harrera zerbitzuaren beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak.

Horri dagokionez, alde batetik, bereizten da zer tratamendu ematen zaion TicketBAI fitxategiari erabat errefusatu denean, alegia, erroreak izateagatik fitxategi hori jasotzea ezinezkoa denean. Kasu horretan, konponketa fitxategi bat

sortu beharko da, eta «zuzendu-alta» edo «zuzendu-baliogabetze» zerbitzuen bitartez bidaliko da.

Bestetik, arautzen da zer tratamendu jasotzen duten TicketBAI fitxategiak eta konponketa fitxategiak zati batean errefusatzeko direnean. Alegia, ezartzen da nola jokatu behar den fitxategi horiek iristean ohartarazten zaigunean fitxategiak hainbat errore dituela balioztapen jakin batzuk ez gainditzeagatik. Kasu horretan, bi modutara zuzendu ahal izango dira TicketBAI fitxategia edo konponketa fitxategia: zuzenean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez, edo aldaketa fitxategi bat sortuz, zeina Zerga Administrazioari bidaliko baitzaio «zuzendu-alta» zerbitzuaren bidez.

TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamenduan ezarritako garapena betetzearren, egoki da onestea TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak.

Horrenbestez, hau.

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Errefusatutako TicketBAI fitxategiari dagokion informazioa bidaltzeko prozedura.

1. TicketBAI fitxategia errefusatzeko bada TicketBAI Softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitortpena arautzen dituen abenduaren 23ko 521/2020 Foru Aginduan ezarritako gutxieneko balioztapenak ez gainditzeagatik, fitxategi horri dagokion informazioa zuzendu egin beharko da konponketa fitxategi bat bidaliz, foru agindu honen I. eranskinean arautzen diren «Zuzendu» zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak kontuan hartuta.

2. Errefusatutako TicketBAI fitxategiak ezin izango du inolako aldaketarik jasan, eta bere jatorrizko egoeran gorde beharko da sistema informatikoaren barruan, TicketBAI softwareak sortutako TicketBAI fitxategiaren osotasuna, Kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzeko.

2. artikulua. Errore abisuarekin jasotako TicketBAI alta fitxategiari eta haren konponketa fitxategiari dagokien informazioa bidaltzeko prozedura.

1. TicketBAI alta fitxategia edo haren konponketa fitxategia errore abisuarekin jaso bada eta zergadunari haien berri eman bazaio dela REST zerbitzuaren bitartez (fitxategia jasotzeko unean) dela beste bitarteko batzuk erabilita (ondorengo une batean), fitxategi horri dagokion informazioa aldatu egin beharko da jarraian adierazten diren moduetako batean:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan zergadunaren esku propio jarriko den zerbitzura sartuz.

b) Aldaketa fitxategia bidaliz, foru agindu honen I. eranskinean arautzen diren «zuzendu-alta» zerbitzuaren beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak kontuan hartuta.

Aurreko a) eta b) letretan aurreikusitako bitartekoak elkarren osagarri dira, eta bata zein bestea erabili ahal izango da erroreak zuzentzeko.

2. Errore abisuarekin jasotzen den TicketBAI alta fitxategiak ezin izango du inolako aldaketarik jasan, eta bere jatorrizko egoeran gorde beharko da sistema informatikoaren barruan, TicketBAI softwareak sortutako TicketBAI alta fitxategiaren osotasuna, Kontserbazioa, trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzeko.

Azken xedapenetako lehena. TicketBAI softwarearen zehaztapen teknikoak eta funtzionalak arautzen dituen foru agindua aldatzea.

Aldaketa hauek sartzen dira TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitortpena arautzen dituen abenduaren 23ko 521/2020 Foru Aginduan.

Bat. Xedapen iragankor bakarra gehitzen da, honela dioena:

«Xedapen iragankor bakarra. Sinadura elektronikoaren zehaztapenen araubide iragankorra.

Gipuzkoako Foru Ogasunera bidalitako TicketBAI fitxategiak elektronikoki sinatu badira foru agindu honetako III. eranskinean sinadura elektronikoari buruz jasotzen diren zehaztapenak kontuan hartuta –«TicketBAI fitxategien sinadura elektronikoaren zehaztapenak» deitutako eranskina, TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak arautzen dituen 16/2022 Foru Aginduak eranskin horretan sartutako aldaketa indarrean jartzeko datan duen idazkeran–, beren balio eta ondorio guztiak gordeko dituzte.»

Bi. III. eranskina («TicketBAI fitxategien sinadura elektronikoaren zehaztapenak»), foru agindu honekin batera doan II. eranskinak ordeztuko du.

Hiru. IV. eranskina («TicketBAI fitxategiak bidaltzeko beharkizunak eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak»), foru agindu honekin batera doan III. eranskinak ordeztuko du.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.



ALDAKETAK

Honako zerrendan foru aginduak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *40/2022 Foru Agindua, urtarrilaren 25ekoa, TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 16/2022 Foru Aginduaren I. eta III eranskinak ordezkatzan dituen (2022/01/27ko GAO).*

- Artikulu bakarrak I. eta III. eranskinetako edukien ordezkari, foru-aginduko I. eta II. eranskinetako edukia ezartzen ditu.

- *357/2023 Foru Agindua, abuztuaren 6koa, zeinaren bidez aldatzen baita 521/2020 Foru Agindua, abenduaren 23koa, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen (2023/08/21ko GAO).*

- Bere amaierako lehen xedapenak aldaketak sartzen ditu «TicketBAI fitxategiak konpondu eta aldatzeko sortutako «Zuzendu» zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak» izenaren I. eranskineko 8. apartatua.

I. ERANSKINA^{1;2}

TICKETBAI FITXATEGIAK KONPONDU ETA ALDATZEKO SORTUTAKO «ZUZENDU» ZERBITZUEN BEHARKIZUNAK, PROZEDURA ETA ZEHAZTAPEN TEKNIKO ETA FUNTZIONALAK.

1. Xedea.

Eranskin honek ezartzen du zer prozedurari jarraitu behar zaion TicketBAI betebeharraren araudian ezarritako baldintzak eta beharkizunak ez betetzeagatik errefusatutako eta/edo errore abisuarekin jasotako TicketBAI fitxategiari dagokion informazioa bidaltzeko.

Era berean, ezartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak «zuzendu» fitxategietako mezuak jaso ditzan zeintzuk izan behar diren zuzendu zerbitzuen beharkizunak eta zehaztaperen tekniko eta funtzionalak.

REST zerbitzuak erabiliko dira, informazioa denbora errealean ematea ahalbidetzeko.

2. Definizioak:

Foru agindu honen ondorioetarako, bai eta haren eranskinaren ondorioetarako ere, definizio hauek ezartzen dira:

2.1. Zuzendu fitxategiak: hurrengo A) eta B) letretan definitutako konponketa fitxategiak eta/edo aldaketa fitxategiak:

A) Konponketa fitxategiak: TicketBAI fitxategien konponketa fitxategiak, hurrengo a) eta b) letretan zehaztuak:

a) TicketBAI altako fitxategiaren konponketa fitxategia: errefusatutako TicketBAI altako fitxategian behar bezala bidali behar zen informazioa jasotzen duen fitxategia.

b) TicketBAI baliogabetze fitxategiaren konponketa fitxategia: errefusatutako TicketBAI baliogabetze fitxategian behar bezala bidali behar zen informazioa jasotzen duen fitxategia.

B) Aldaketa fitxategiak: TicketBAI altako fitxategia aldatzeko fitxategia eta altako fitxategiaren konponketa fitxategia aldatzeko fitxategia, hurrengo a) eta b) letretan zehazten direnak:

¹ Eranskin hau urtarrilaren 25eko 40/2022 Foru Aginduaren artikulua bakarrik aldatu du. Aipatutako foru aginduak TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztaperen tekniko eta funtzionalak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 16/2022 Foru Aginduaren I. eta III eranskinak ordezkatzen ditu. Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu egun berean jartzen da indarrean (2022/01/27ko GAO), eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

² 8. apartatuko 8.1.1 eta 8.2.1 azpiapartatuak abuztuaren 6ko 357/2023 Foru Aginduko azken xedapenetako lehenaren bat eta bi apartatuak, hurrenez hurren, aldatu dituzte. Aipatutako foru aginduak TicketBAI softwarearen zehaztaperen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen abenduaren 23ko 521/2020 Foru Agindua aldatzen du. 357/2023 Foru Agindua 2023ko urriaren 15ean sartzen da indarrean (2023/08/21eko GAO) baina aldaketek 2023ko irailaren 12tik aurreko ondorioak dituzte.

a) TicketBAI altako fitxategia aldatzeko fitxategia: errore abisuarekin jaso den TicketBAI altako fitxategian behar bezala bidali behar zen informazioa jasotzen duen fitxategia.

b) TicketBAI altako fitxategiaren konponketa fitxategia aldatzeko fitxategia: errore abisuarekin jaso den TicketBAI altako fitxategiaren konponketa fitxategian behar bezala bidali behar zen informazioa jasotzen duen fitxategia.

2.2. Zuzendu zerbitzuak: hurrengo A) eta b) letretan definitutako zuzendu-alta zerbitzua eta/edo zuzendu-baliogabetze zerbitzua:

A) Zuzendu-alta zerbitzua: TicketBAI altako fitxategien konponketa fitxategiak eta haien aldaketa fitxategiak jasotzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak duen zerbitzua, fitxategietako mezuak jasotzen dituen.

B) Zuzendu-baliogabetze zerbitzua: TicketBAI baliogabetze fitxategien konponketa fitxategiak jasotzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak duen zerbitzua, fitxategietako mezuak jasotzen dituen.

3. Konponketa fitxategiak bidaltzeko prozedura.

TicketBAI fitxategia errefusatzen bada TicketBAI fitxategien egiturari edo gutxieneko edukietan erroreak ageri direlako, konponketa fitxategi bat sortu beharko da eta «zuzendu» zerbitzuaren bidez bidali.

4. Aldaketa fitxategiak bidaltzeko prozedura.

TicketBAI altako fitxategia edo TicketBAI altako fitxategiaren konponketa fitxategia jasotzen bada faktura zuzentzailea egitera behartzen ez duten erroreak ohartarazita, eta errore horiek fitxategian informatu behar diren gainerako datuen kontsolidazio balioztapenak ez gairatzearen ondorio badira, aldaketa fitxategi bat sortu beharko da eta «zuzendu» zerbitzuaren bidez bidali.

Era berean, TicketBAI altako fitxategia edo TicketBAI altako fitxategiaren konponketa fitxategia errorerik gabe jasota ere, zergadunak beharrezkotzat jotzen badu fitxategian dagoen informazioa aldatzea, posible izango da aldaketa fitxategi bat sortzea, «zuzendu» zerbitzuaren bidez bidaliko dena, betiere egoerak faktura zuzentzailea egitea exijitzen ez badu.

5. Zuzendu zerbitzuen funtzionamenduaren eskema orokorra.

5.1. TicketBAI softwaretik aparte.

Zuzendu fitxategiak sortzeko eta haiek zuzendu zerbitzuen bidez bidaltzeko funtzionalitatea TicketBAI softwarearen zehaztapenetik kanpo geratzen da.

TicketBAI softwareak bere sisteman gordeko du errefusatutako edo errore abisuarekin jasotako fitxategia. TicketBAI fitxategi hori aldaketarik gabe mantendu behar da, jasotze zerbitzura bidali zen bezala, foru agindu honen 1.2 eta 2.2 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

5.2. Mezuak bidaltzea.

Zuzendu fitxategiak telematikoki bidaliko dira, zehazki, XML mezuen trukean oinarritutako REST zerbitzuen bitartez. Mezu guztiei modu sinkronoan erantzuten zaie.

Bi mezu mota definituko dira: Bata, fitxategiak zuzendu-alta zerbitzuaren bidez bidaltzeko, eta, bestea, fitxategiak zuzendu-baliogabetze zerbitzuaren bidez bidaltzeko.

5.3. Balioztapenak.

Zuzendu fitxategiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan une bakoitzean argitaratzen diren balioztapen guztiak gainditu beharko dituzte. Balioztapenekin batera, argitara emango dira, halaber, horietako bakoitzari dagozkion errorearen tipifikazioa, errore horiekin lotutako kodeak eta deskribapenak, eta fitxategiak jasotzearekin lotutako gainerako abisuak.

Balioztapenak harrerakoak zein kontsolidaziokoak izan daitezke, eta modu sinkronoan edo asinkronoan egin ahal izango dira.

Konponketa fitxategien kasuan, balioztapenak harrerakoak eta kontsolidaziokoak izaten ahalko dira. Aldaketa fitxategien kasuan, balioztapen guztiak harrerakoak izango dira.

5.3.1. Harrerako balioztapenak.

Zuzendu fitxategiak harrerako balioztapenetakoren bat gainditzen ez duenean, erantzunean «01 Errefusatuta» adieraziko da, eta zer errore mota antzeman den informatuko da.

Zergadunak, behin erroreak zuzendu ondoren, kasuan kasuko konponketa edo aldaketa fitxategia birbidali beharko du.

Errefusatzeko diren zuzendu fitxategiak ez dira erregistratuko Gipuzkoako Foru Aldundiaren sistema informatikoan.

5.3.2. Kontsolidazioko balioztapenak.

Zuzendu fitxategiak harrerako balioztapenak gainditzen dituenean, «00 Jasota» adieraziko da erantzunean. Orobat, kontsolidazioko balioztapenak ere egin ahal izango dira modu sinkronoan, eta horiek gainditzen ez badira, horren berri emango da erantzun mezuan, eta zer errore mota antzeman den ere adieraziko da.

Ondorengo prozesu batean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren sistema informatikoak kontsolidazioko balioztapen gehiago egin ahal izango ditu jasotako informazioari buruz, modu asinkronoan. Balioztapen gehigarri horietan errorerik antzemanaz gero, zergadunei jakinaraziko zaie beste bitarteko batzuk erabilita.

Nolanahi ere, kontsolidazio erroreak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan kontsultatu ahal izango dira beti.

TicketBAI altako fitxategia konpontzen duen fitxategia errore abisuarekin jasoz gero, honako hauek gerta daitezke:

a) Otsailaren 26ko 8/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Fakturazio obligazioak arautzen dituen Erregelamenduaren 15. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan aurreikusitako arrazoiak batekin zerikusia duten erroreak, faktura zuzentzailea egitea exijitzen dutenak. Kasu horretan, sortuko den TicketBAI altako fitxategia faktura zuzentzaileari dagokiona izango da, eta TicketBAI altako fitxategiak jasotzeko zerbitzura bidaliko da.

b) Erroreek ez exijitzea faktura zuzentzailearik egitea, baina TicketBAI altako fitxategian informatu behar diren gainerako datuen ondorioz gertatzea errore

horiek. Kasu horretan, aldaketa fitxategi bat sortu beharko da, eta zuzendu-alta zerbitzuaren bitartez bidali.

Erroreak dituzten fitxategiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren sistema informatikoan erregistratuko dira, baina ez dira kontuan hartuko zerga ondorioetarako.

5.4. Erantzun mezuak.

Erantzunaren XML fitxategian, erantzunaren egoera adierazteaz gain, informazio hau ere jarriko da: TicketBAI Kodea, XML fitxategia jaso den ordua, eta Egiaztapen Kode Seguru bat. Erantzunean TicketBAI Koderik ez agertzeak esan nahi du ezinezkoa izan dela zehaztea zein den zuzendu fitxategian jasotako informazioaren TicketBAI Kodea.

6. Zuzendu zerbitzuak.

6.1 Zuzendu-alta zerbitzua.

Zuzendu-alta zerbitzuaren bitartez bi ekintza egin ahal izango dira:

- Konpondu: sisteman oraindik jaso ez den TicketBAI altako fitxategi bat konpondu beharra badago, zuzendu-alta zerbitzua erabili beharko da konpontzeko ekintzaren bidez.
- Aldatu: sisteman jaso den TicketBAI altako fitxategi bat edo konponketa fitxategi bat zuzendu beharra badago, zuzendu-alta zerbitzua erabili beharko da aldatzeko ekintzaren bidez.

Zerbitzu honen bitartez, honako fitxategiak dituzten mezuak jasoko dira:

- TicketBAI altako fitxategiak konpontzeko fitxategiak.
- TicketBAI altako fitxategiak aldatzeko fitxategiak.
- TicketBAI altako fitxategien konponketa fitxategiak aldatzeko fitxategiak.

Konponketa eta aldaketa fitxategiek TicketBAI altako fitxategiak izan behar zuen informazioa jasoko dute, sinaduraren atala kenduta. Era berean, elementu berri batean, zuzentzen edo aldatzen ari den TicketBAI altako fitxategiaren sinaduraren lehenengo 100 karaktereak jasoko dituzte.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan fitxategi horiek zer formatu eta diseinu espezifiori erantzun behar dioten argitaratuko da.

6.2 Zuzendu-baliogabetze zerbitzua.

Zuzendu-baliogabetze zerbitzuan ekintza bakarra egin ahal izango da: konponketa.

Zerbitzu honen bitartez iritsiko diren mezuetan TicketBAI baliogabetze fitxategien konponketa fitxategiak jasoko dira.

Konponketa fitxategi horiek TicketBAI baliogabetze fitxategiak izan behar zuen informazioa jasoko dute, sinaduraren atala kenduta. Era berean, elementu berri batean, zuzentzen ari den TicketBAI baliogabetze fitxategiaren sinaduraren lehenengo 100 karaktereak jasoko dituzte.

Fitxategi horren formatu eta diseinu espezifikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratuko da.

7. Estandarrak eta beharkizunak.

7.1 Sarrera.

Mezuaren edukia XML fitxategi bat da. XML fitxategiak egitura desberdinetan deskribatzen diren erregelak bete behar ditu (formatuei, derrigortasunari eta abarri buruzko erregelak), baina, edozein kasutan, datuak prestatu eta aurkezten dutenek datuen koherentzia bermatu behar dute jatorrian.

Egitura bakoitza datu multzotan antolatzen da, eta multzo horietan datuen elementuak daude. Elementu horiek bloke logikoak osatuz taldekatu dira, egitura bakoitzaren eremuarekin koherentzia izan dezaten.

REST zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten softwareak ziurtagiri elektroniko baten bidez autentifikatu beharko dira bezeroaren aldetik, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen abenduaren 23ko 521/2020 Foru Aginduaren IV. eranskineko 3.1 puntuan ezartzen den moduan. Beraz, zuzendu zerbitzuak erabili nahi badira, Gipuzkoako Foru Aldundiak onartzen duen ziurtagiri elektroniko aitortu bat eduki beharko da. Ziurtagiri hori pertsona fisikoarena, entitatearen ordezkariarena, gailuarena, enpresako zigilu elektronikoarena, autonomoarena edo baimendu daitekeen beste edozeinena izan daiteke.

Zuzendu fitxategiak zergadunaren ziurtagiriarekin bidali daitezke, edo, bestela, aukera hauetako edozein erabiliz:

- Behar bezala baimendutako lege edo zerga ordezkariaren ziurtagiria.
- Kolaboratzaile sozialaren ziurtagiria.
- Zergadunak baimendutako gailuaren ziurtagiria, TicketBAI softwarearen zehaztapen tekniko eta funtzionalak eta TicketBAI Softwarearen Erregistroan alta emateko aitorpena arautzen dituen abenduaren 23ko 521/2020 Foru Aginduaren IV. eranskinean xedatutakoaren arabera.

Kolaboratzaile sozialen kasuan, bete beharrekoa izango da abenduaren 23ko 523/2020 Foru Aginduan xedatutakoa, bertan ezarrita baitaude TicketBAI obligazioa betetzearen ondorioz sortutako TicketBAI fitxategiak bidaltzeko gizarte lankidetzak bete behar dituen baldintzak.

7.2 Erabilitako estandarrak.

RESTful web zerbitzuak webean APlak edo programazio interfazeak azaltzeko diseinatuta daude. Helburua da errendimendua, eskalabilitatea eta malgutasuna ohiko web zerbitzuek ematen dutena baino handiagoa izatea, bezeroek aukera izan dezaten datu eta baliabideak URL aurreikusgarrien bidez eskuratzeko. Izan ere, informazio sistemak (herritar/enpresarena eta Foru Ogasunarena) era horretan komunikatuko dira elkarrekin. RESFful zerbitzuak garatzeko, de facto estandarrak erabiliko dira.

Zuzendu fitxategien egitura XML eskemetan oinarritzen da, 2004ko urriaren 28ko W3C gomendioa erabilia (lotura: <http://www.w3.org/TR/xmlschema-0>). Namespace hau du erreferentzia: <http://www.w3.org/2001/XMLSchema>

Zerbitzu bakoitzak sarrera mezu bat eta irteera erantzun bat izango ditu definituta bakoitzari dagokion XSD eskemaren bidez.

8. Zuzendu zerbitzuen definizioa.

8.1 Zuzendu-alta zerbitzuko fitxategiak jasotzea.

Zerbitzu honen bitartez posible da TicketBAI altako fitxategien konponketa fitxategiei eta aldaketa fitxategiei sarrera ematea Gipuzkoako Foru Ogasunaren sisteman.

8.1.1 Bidaltzeko bitartekoa.

Ingurunea: Internet.

Protokoloa: HTTPS 1.1 (TLS 1.2 edo handiagoa).

Bidaltzeko modua: POST.

Mezuak: Rest Service.

Kodifikazioa: UTF-8. Sarrera XML bat da, jarraian azaltzen den XSD sarrera eskemaren zehaztapenera egokitua.

TicketBAI altako fitxategiaren konponketa fitxategiak eta aldaketa fitxategiak egitura hau izango dute:

ZUZENDU-ALTA	urn:ticketbai:zuzendu-alta
Esquema XSD	
	Cabecera
	Sujetos
	Factura
	HuellaTBAI
	SignatureValueFirmaFactura
Respuesta	00 Recibido 01 Rechazado

Goiburuko elementuen definizioa (subjektuak, faktura, eta aztarna TicketBAI fitxategien altako eskema komunetik hartu da (TicketBAIren dokumentazioari buruzko webgunean ageri den "XSD fitxategiak bidali eta baliogabetzeko eskemak (ZIP)" ataletik: <https://www.gipuzkoa.eus/ticketbai>).

TicketBAI altako fitxategiarekiko aldaketen xehetasuna:

- XML-a sinatzeko atala ezabatu da:

```
<complexType>
  <sequence>
    <element name="Cabecera" type="T:Cabecera"/>
    <element name="Sujetos" type="T:Sujetos"/>
    <element name="Factura" type="T:Factura"/>
    <element name="HuellaTBAI" type="T:HuellaTBAI"/>
    <element
      name="SignatureValueFirmaFactura"
type="T:SignatureValueFirmaFactura "/>
    <element ref="ds:Signature"/>
  </sequence>
</complexType>
```

- Eremu berria sartu da goiburuan, egin behar den ekintza zehazteko:
 - “KONPONDU”.
 - “ALDATU”.

```

      <complexType name="Cabecera">
        <sequence>
          <element name="IDVersionTBAI"
type="T:IDVersionTicketBaiType"/>
          <element name="Accion"
type="T:AccionType"/>
        </sequence>
      </complexType>

```

- “*SignatureValueFirmaFactura*” elementua gehitu da:
 - TicketBAI altako fitxategiak konpondu edo aldatzeko fitxategietan, konpontzen edo aldatzen ari den TicketBAI alta fitxategiaren sinaduraren lehen 100 karaktereak jaso behar dira.
 - Konponketa fitxategiak aldatzeko fitxategietan, aldatzen ari den konponketa fitxategiaren SignatureValueFirmaFactura atala jasoko da.

```

      <complexType name=" SignatureValueFirmaFactura ">
        <sequence>
          <element name="SignatureValueFirmaFactura"
type="T:TextMax100Type"/>
        </sequence>
      </complexType>

```

- TicketBAIren azterna elementua mantentzen da, konpondu edo aldatu nahi den TicketBAI altako fitxategian bidali zen informazioa bertan jasotzeko.

Zerbitzuaren helbidea: <https://tbai-z.egoitza.gipuzkoa.eus/sarrerak/zuzendu-alta>

Eskatzen diren http goiburuak: Content-Type: application/xml;charset=UTF-8.

Ziurtagiria: REST zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten aplikazioak ziurtagiri elektronikoaren bidez autentifikatu beharko dira bezeroaren aldetik. Beraz, zerbitzuak erabili ahal izateko, beharrezkoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak onartzen duen ziurtagiri elektroniko aitortu bat edukitzea.

Sinadura: sarrerako XML mezua ez da sinatuta joango.


8.1.2 Erantzuna.

Ingurunea: Internet.

Protokoloa: HTTPS.

Mezuak: Rest Service.

Kodifikazioa: UTF-8. Irteera XML bat da, UTF-8 kodearekin kodifikatua. XML-a irteerako XSD eskema honen zehaztapenera egokitzen da (*ticketBaiResponse.xsd*). TicketBAI fitxategiak jasotzeko zerbitzuaren erantzun fitxategiaren eskema bera da.



Sinadura: erantzun mezua ez da sinatuta.

8.1.3 Eraitza kodeak

Erantzunaren egoera elementuan jasotako egoeraren kode globalak aukera hauek ditu:

BALIOA	DESKRIBAPENA	ESANAHIA
00	Jasota	TicketBAI alta fitxategiaren konponketa fitxategia edo aldaketa fitxategia jaso egin da
01	Errefusatuta	TicketBAI alta fitxategiaren konponketa fitxategiak edo aldaketa fitxategiak jasotzea ekiditen duten erroreak ditu

8.2 Zuzendu-baliogabetze zerbitzuko fitxategiak jasotzea.

Zerbitzu honen bitartez posible da TicketBAI baliogabetze fitxategiak konpontzeko fitxategiei sarrera ematea Gipuzkoako Foru Aldundiaren sisteman.

8.2.1 Bidaltzeko bitartekoa.

Ingurunea: Internet.

Protokoloa: HTTPS 1.1 (TLS 1.2 edo handiagoa)

Bidaltzeko modua: POST.

Mezuak: Rest Service

Kodifikazioa: UTF-8. Sarrera XML bat da, jarraian azaltzen den XSD sarrera eskemaren zehaztapenera egokitua.

TicketBAI baliogabetze fitxategia konpontzen duen fitxategiak egitura hau izango du:

ZUZENDU-ANULACION	urn:ticketbai:zuzendu-baja
Esquema XSD	
	Cabecera
	IDFactura
	HuellaTBAI
	SignatureValueFirmaAnulacion
Respuesta	00 Recibido 01 Rechazado

Goiburuko elementuen definizioa (subjektuak, faktura, eta aztarna TicketBAI fitxategiak baliogabetzeko eskema komunetik hartu da (TicketBAIren dokumentazioari buruzko webgunean ageri den *"XSD fitxategiak bidali eta baliogabetzeko eskemak (ZIP)"*) ataletik: <https://www.gipuzkoa.eus/ticketbai>).

TicketBAI baliogabetze fitxategiarekiko aldaketen xehetasuna:

- XML-a sinatzeko atala ezabatu da:

```
<complexType>
  <sequence>
    <element name="Cabecera" type="T:Cabecera"/>
    <element name="Factura" type="T:Factura"/>
    <element name="HuellaTBAI" type="T:HuellaTBAI"/>
    <element
      name="SignatureValueFirmaFactura"
type="T:SignatureValueFirmaFactura "/>
    <del><element ref="ds:Signature"/></del>
  </sequence>
</complexType>
```

- "SignatureValueFirmaAnulacion" elementua gehitu da, konpontzen ari den TicketBAI baliogabetze fitxategiaren sinaduraren lehen 100 karaktereak jasotzeko

```
<complexType name=" SignatureValueFirmaAnulacion ">
  <sequence>
    <element name="SignatureValueFirmaAnulacion"
type="T:TextMax100Type"/>
  </sequence>
</complexType>
```

- TicketBAIren azterna elementua mantentzen da, konpondu nahi den TicketBAI baliogabetze fitxategian bidali zen informazioa bertan jasotzeko.

Zerbitzuaren helbidea: <https://tbai-z.egoitza.gipuzkoa.eus/sarrerak/zuzendu-baja>

Eskatzen diren http goiburuak: Content-Type: application/xml;charset=UTF-8.

Ziurtagiria: REST zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten aplikazioak ziurtagiri elektronikoaren bidez autentifikatu beharko dira bezeroaren aldetik. Beraz, zerbitzuak erabili ahal izateko, beharrezkoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak onartzen duen ziurtagiri elektroniko aitortu bat edukitzea.

Sinadura: Sarrerako XML mezua ez da sinatuta joango.


8.2.2 Erantzuna.

Ingurunea: Internet.

Protokoloa: HTTPS.

Mezuak: Rest Service.

Kodifikazioa: UTF-8. Irteera XML bat da, UTF-8 kodearekin kodifikatua. XML-a irteerako XSD eskema honen zehaztapenera egokitzen da (*ticketBaiResponse.xsd*). TicketBAI fitxategiak jasotzeko zerbitzuaren erantzun fitxategiaren eskema bera da.



Sinadura: erantzun mezua ez doa sinatuta.

8.2.3 Eraitza kodeak.

Erantzunaren **egoera** elementuan jasotako egoeraren kode globalak aukera hauek ditu:

BALIOA	DESKRIBAPENA	ESANAHIA
00	Jasota	TicketBAI baliogabetze fitxategia konpontzeko fitxategia jaso egin da.
01	Errefusatuta	TicketBAI baliogabetze fitxategia konpontzeko fitxategiak jasotzea ekiditen duten erroreak ditu

9. BESTE OHAR BATZUK.

9.1. Erroreak eskaerak prozesatzean.

HTTP eskaera prozesatzean erroreak gertatzen badira, HTTP protokolo estandarrean deskribatzen den eran komunikatu beharko dira.

Laburpen moduan, eskaera bati erantzutean kasu hauek gerta daitezke:

Emaila bezeroaren aldetik	Ekintza
Erantzun bat jaso da, eta XML formatua du, espero bezala.	Eskaera prozesatuta. Erantzuna aztertu behar da, eragiketaren emaila zehazteko.
Erantzun bat jaso da eta haren formatua ez da zuzena.	Errorea eskaeraren prozesuan. Eskaera errepikatu behar da.

9.2. Karaktere berezien “ihes” sekuentziei buruzko argipena.

Baldin eta XML elementu baten balio batean hurrengo karaktereetako bat jarri behar bada, haien ordezkari “ihes” sekuentzia hauek erabiliko dira:

Karakterea	“Ihes” sekuentzia
&	&
<	<
>	>

II. ERANSKINA

TICKETBAI SOFTWAREAREKIN EGINDAKO ERAGIKETAREN ALTA- ETA BALIOGABETZE- FITXATEGIEN SINADURA ELEKTRONIKOAREN ZEHAZTAPENAK

1. Xedea.

Dokumentu honek ezartzen ditu TicketBAI softwarearekin egindako eragiketaren alta- eta baliogabetze-fitxategien sinadura elektronikoaren zehaztapenak (aurrerantzean, sinatzeko zehaztapenak) TicketBAI betebeharra erregulatzen duen araudiak aipatzen duena.

Sinadura elektronikoaren zehaztapenak identifikatzaile bakar batekin identifikatuko dira: <https://www.gipuzkoa.eus/ticketbai/sinadura>.

Identifikazio hori nahitaez sartu beharko da TicketBAI softwarearekin egindako eragiketaren alta- eta baliogabetze-fitxategien sinadura elektronikoan, eta dagokion identifikazio-eremua erabiliko da espezifikazioen esparru orokorra zehazteko, bai eta hura baliozkotzeko aplikatu beharreko baldintza orokor eta espezifikoak dituen bertsioa ere.

2. Irismena.

2. 1. Jarduleak.

Sinadura elektronikoa sortzeko eta baliozkotzeko prozesuko jarduleak honako hauek dira:

- Sinatzailea: nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoa edo juridikoa, sinadura sortzeko gailu bat duena eta TicketBAI softwarearekin alta emateko edo eragiketa baliogabetzeko fitxategi bat sinatzen duena.
- Egiaztatzailea: sinadura elektroniko bat baliozkotzen edo egiaztatzen duen erakundea, pertsona fisikoa zein juridikoa izan, sinadura zehatzaren zehaztapen batzuek eskatzen dituzten baldintzetan oinarrituta.
- Konfiantzazko zerbitzuen emaila: ziurtagiri elektronikoak ematen dituen edo sinadura elektronikoarekin lotutako beste zerbitzu batzuk ematen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa.
- Sinadura-zehaztapenen igorlea: dokumentu hau sortzeaz eta kudeatzeaz arduratzen den erakundea; horren bidez, sinatzaileak eta egiaztatzaileak hori bete dute sinadura elektronikoa sortzeko eta baliozkotzeko prozesuetan.

2. 2. Sinadura elektronikorako onartutako formatua

TicketBAI softwarearekin egindako eragiketaren altako eta baliogabetzeko fitxategien sinadura elektronikorako onartutako formatua FormatoXAdes (XML AdvancedElectronicSignatures) da, ETSI en 319 132-1 V1.1.1, ETSI TS 103 171 V2.1.1 eta ETSI TS 101 903 V1.4.2 zehaztapen teknikoen arabera. Estandarraren ondorengo bertsioetarako, sintaxiaren aldaketak aztertuko dira, eta profila estandarraren bertsio berrira egokitzea onartuko da, eranskin hau aldatuz.

Sinaduraren zehaztapen horietan, ds: eta xades: aurrizkiak erabiliko dira XMLDSig eta XAdES estandarretan definitutako elementuei erreferentzia egiteko, hurrenez hurren.

XAdES formatuan hainbat mota daude; sinadura oinarritzko mota sortzeko prestatu behar da gutxienez, sinadura-zehaztapenei buruzko informazioa gehituz (EPES mota).

2. 3. Sinadura elektronikoa sortzea.

Sinadura elektronikoa sortzeko dagoeneko badauden liburutegi kriptografikoak edo produktuak erabiltzea komeni da.

Ez da beharrezkoa sinaduran TSA zerbitzu batek emandako denbora-zigilua txertatzea sinatzen den unean.

2. 4. Sinadura elektronikoa egiaztatzea

Egiaztatzaileak edozein metodo estandarizatu erabil dezake eranskin honen arabera sortutako sinadura egiaztatzeko. Sinadura bat baliozkotzeko honako baldintza hauek bete behar dira gutxienez:

1. Sinaduraren osotasunaren baliozkotasuna bermatu behar da.
2. Sinadura egiten denean ziurtagiriak baliozkoak izan behar dira.
3. Sinatzaile-ziurtagiria gordailu publiko batean baliagarri dagoen ziurtapen-praktiken deklarazio jakin baten arabera egin behar da.
4. Ziurtagiri sinatzailearen jaulkitzaileak konfiantza- zerbitzu kualifikatuen emaileen zerrendan egon beharko du (QTSP). Zerrenda hori hemen dago eskuragarri: <https://webgate.ec.europa.eu/tl-browser/#/>

2. 5. Sinatzeko zehaztapenak kudeatzea

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio sinatzeko zehaztapenak mantentzea, eguneratzea, argitaratzea eta zabaltzea.

Zehaztapen horien eguneratzeak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta esteka honetan argitaratuko dira: <https://www.gipuzkoa.eus/ticketbai/sinadura>

3. Sinadura elektronikoa baliozkotzea.

Atal honetan, sinadura elektronikoa sortzeko prozesuan sinatzaileak eta sinadura elektronikoa baliozkotzeko prozesuan egiaztatzaileak kontuan hartu beharko dituzten baldintzak zehazten dira.

3. 1. Indarraldia.

Sinadura-zehaztapen horiek baliozkoak dira argitaratzen direnetik bertsio eguneratu berri bat argitaratzen den arte, eta aldi baterako epe bat eman daiteke, bi bertsioak elkarrekin bizi izan daitezten, tartean dauden eragileen plataformak bertsio berriaren zehaztapenetara egokitu ahal izateko. Bertsio berrian aldi horren iraupena zehaztu beharko da; amaitutakoan bertsio eguneratua baino ez da izango baliozkoa.

3. 2. Arau komunak.

Sinadura elektronikoa, sinatzailean eta egiaztatzailean parte hartzen duten eragileentzako arau komunak nahitaezko eremua dira, eta sinaduraren zehaztapen guztietan agertu behar dute. Arau horiei esker, sinadura elektronikoa sortzen duen pertsona edo erakundearen eta sinadura hori egiaztatzen duen pertsona edo erakundearen gaineko erantzukizunak ezar daitezke, aurkeztu beharreko gutxieneko baldintzak zehaztuta, betiere izenpetuta sinatzailearentzako baldintzak badira, edo ez izenpetuta, egiaztatzailearentzako baldintzak badira.

3. 3. Sinatzaileak bete beharreko arauak.

Sinatzaileak bere gain hartuko du sinatu beharreko fitxategian sinaduraren emaitza denboran zehar alda dezakeen eduki dinamikorik ez egotearen ardura. Sinatu beharreko

fitxategia sinatzaileak sortu ez badu, pertsona horrek ziurtatu beharko du fitxategiaren barruan ez dagoela eduki dinamikorik (makroak, adibidez).

XAdES formatua: XAdESenveloped sinadurak bakarrik onartuko dira. XAdESenveloping eta XAdESdettached sinadurak ez dira onartuko.

Sinatzaileak, gutxienez, SignedProperties eremuko etiketa hauetan jasotako informazioa eman beharko du (eremu horretan, XMLDsig sinadura sortzeko orduan batera sinatutako propietate batzuk daude); horiek nahitaezkoak dira:

- SigningTime: sinatzaileak sinadura-prozesua noiz egin zuen zehazten du.
- SigningCertificatev2 edo SigningCertificate: ziurtagiri bakoitzean erabilitako segurtasun- algoritmoen eta ziurtagiriaren erreferentziak jasotzen ditu. Elementu hori sinatu egin beharko da, ziurtagiria ordeztzeko aukerarik egon ez dadin.
- SignaturePolicyIdentifier: sinadura elektronikoa sortzeko prozesuaren oinarri diren sinadura- zehaztapenak identifikatzen ditu, eta honako eduki hauek izan behar ditu azpibanatzen den elementuetan:
 - a) Sinadura-zehaztapenen dokumentu honen erreferentzia esplizitua, xades elementuan: SigPolicyId. Horretarako, sinaduraren zehaztapenen bertsio zehatza identifikatzen duen OIda edo haren kokapenaren URLa agertuko da.
 - b) Dagokion sinadura-zehaztapenen dokumentuaren aztarna digitala eta erabilitako algoritmoa, <xades: SigPolicyHash> elementuan; horrela, egiaztatzaileak egiaztatu ahal izango du, balio hori kalkulatu, sinadura hura baliozkotzeko erabiliko diren sinadura-zehaztapenen arabera sortu dela.

SignedProperties eremuan ezar daitezkeen gainerako eremuak aukerakoak dira:

- SignatureProductionPlacev2 edo SignatureProductionPlace: dokumentua sinatu den leku geografikoa definitzen du.
- SignerRolev2 edo SignerRole: pertsonak sinadura elektronikoan duen rola definitzen du. Erabiltzen bada, balio hauetako bat eduki beharko du ClaimedRoles eremuan:
 - a) "Supplier" edo "igorlea": jaulkitzaileak sinatzen duenean.
 - b) "customer" edo "hartzailea": sinadura hartzaileak egiten duenean.
 - c) "Thirdparty" edo "hirugarrena": jaulkitzailea edo hartzailea ez den beste pertsona edo erakunde batek sinatzen duenean.
- CommitmentTypeIndication: sinatzailearen ekintza definitzen du sinatutako dokumentuaren gainean (onartu, informatu, jaso, ziurtatu...).
- AllDataObjectsTimeStamp: denbora-zigilu bat du, sinadura sortu aurretik kalkulatu, ds:Reference-n dauden elementu guztien gainean.
- IndividualDataObjectsTimeStamp: denbora-zigilu bat du, sinadura sortu aurretik kalkulatu, ds:Reference delakoetan dauden elementu batzuen gainean.

CounterSignature etiketa, sinadura elektronikoaren berrespena, UnsignedProperties eremuan sar daitekeena, aukerakoa da. Hurrengo sinadurak, seriean edo paraleloan, XAdES estandarraren arabera gehituko dira (EN 319 102-1 dokumentua).

3. 4. Egiaztatzailearen arauak.

Sinadura elektroniko aurreratuaren oinarritzko formatuan ez dago baliozkotze-informaziorik, ziurtagiri sinatzaileaz gain. Egiaztatzaileak ezaugarri hauek erabili ahal

izango ditu sinadura sortzeko erabili diren sinadura-zehaztapenen baldintzak betetzen direla egiaztatzeko:

- Signing Time: sinadura elektronikoak egiaztatzeko, adierazitako datan ziurtagirien egoera egiaztatzeko adierazpen gisa baino ez da erabiliko; izan ere, denbora-erreferentziak denbora-zigilu baten bidez baino ezin dira ziurtatu (batez ere bezero-gailuetako sinaduren kasuan).

- SigningCertificatev2 edo SigningCertificate: SigningCertificatev2 edo SigningCertificate: ziurtagiriaren (eta, hala badagokio, ziurtapen- katearen) egoera egiaztatzeko eta egiaztatzeko erabiliko da, sinadura sortzen den egunean, baldin eta ziurtagiria iraungi ez bada eta egiaztapen-datuak (CRL, OCSP) eskuratu badaitezke edo PSCK ziurtagiriaren egoera historikoki baliozkotzeko zerbitzu bat eskaintzen badu.

- SignaturePolicyIdentifier: egiaztatu beharko da sinadura sortzeko erabili diren sinadura- zehaztapenak bat datozela zerbitzu horretarako erabili behar denarekin.

Badago itxarote-aldi bat (zuhurtasun-aldia edo graziazko aldia esaten zaiona), ziurtagiria ezeztatu denez egiaztatzeko erabil daitekeena. Egiaztatzaileak denbora hori itxaron dezake sinadura baliozkotzeko edo une berean egin eta gero berriro baliozkotzeko. Izan ere, baliteke atzerapen txiki bat egotea sinatzaileak ziurtagiri bat baliogabetzen duenetik ziurtagiriaren baliogabetze-egoerari buruzko informazioa dagozkion informazio-puntuetara banatzen den arte. Gomendatzen da aldiaren iraupena, sinadura egiten denetik, CRLak erabat freskatu arte gehienez igaro daitekeen denbora izatea, gutxienez, edo OCSP zerbitzuan ziurtagiriaren egoera eguneratzeko behar den denbora, bestela. Aldi horiek ziurtapen-zerbitzua egiten duenaren arabera izaten dira.

3. 5. Algoritmoak erabiltzeko arauak.

ETSI TS 119 312 V1.3.1 zehaztapenean onartzen diren RSA sisteman oinarritutako algoritmo guztiak erabil daitezke. Gutxieneko ezaugarriak:

- Gakoaren tamaina 1024tik gorakoa izan behar da.

- SHA256 edo bertsio berriagoa.

4. TicketBAI softwarearen arkitekturatik eratorritako betekizunak

4. 1. Onartzen diren ziurtagiriak.

TicketBAI softwareak honako ziurtagiri hauetakoren bat erabili beharko du TicketBAI softwarearekin egindako eragiketaren alta- eta baliogabetze- fitxategiak elektronikoki sinatzeko:

- Gailuaren ziurtagiria, fakturazio-gailu bakoitzerako identitate bakarra ematen duena, instalatuta eta fakturak jaulkitzen diren gailuari lotuta.

- Pertsona fisikoaren edo erakundearen ordezkariaren ziurtagiria, pertsona fisikoaren edo juridikoaren nortasuna egiaztatzeko aukera ematen duena, hurrenez hurren.

- Enpresa-zigilua. Ziurtagiri teknikoa da, eta TicketBAI software batek edo sail edo lantalde bateko pertsona- talde batek erabil dezake. Ziurtagiri hau enpresek lanerako erabili ohi duten kautxuzko zigiluaren antzekoa da.

- Autonomoaren ziurtagiria: kualifikatu gabeko ziurtagiria, Pertsona Fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren arabera ekonomia- jarduerak egiten dituzten pertsona fisikoentzat igortzen dena. Ziurtagiriaren igorpenerako pertsona fisikoak baldintza hori akreditatu beharko du.

4. 2. Sinaduraren murrizketak arkitekturaren arabera.

4. 2. 1. Bezero-sinaduradun arkitekturak.

Bezeraoan sinadura duen arkitekturatzat hartzen da sinadura egiten duen TicketBAI softwarea fakturazio- gailuan bertan dagoenean, bertara sartzen denetik. Esaterako, aplikazioa idazmahaietan.

Sinatzekeo urruneko beste gailu batean sartu behar bada, arkitektura zerbitzari-sinaduraduna da.

Honelako arkitekturetan ziurtagiriek ez dute murrizketarik. Hauek erabil daitezke sinatzeko: gailuaren ziurtagiria, pertsona fisikoaren ziurtagiria, erakundearen ordezkariaren ziurtagiria, enpresa- zigilua edo autonomoaren ziurtagiria.

4. 2. 2. Zerbitzari-sinaduradun arkitekturak.

Zerbitzari-sinadura duen arkitekturatzat hartzen da sinadura egiten duen TicketBAI softwarea bertara sartzeko erabiltzen den fakturazio-gailuaz bestelako gailu batean kokatuta dagoenean. Beraz, bezeroa fakturatzeko gailua urrunetik sartzen da beste gailu batera sinadura egiteko.

Gainera, fakturak egiteko prozesua inoren ikuskapenik gabe egiten bada (batch), arkitektura zerbitzari-sinaduraduna da.

Hauek erabil daitezke sinatzeko: pertsona fisikoaren ziurtagiria, erakundearen ordezkariaren ziurtagiria, enpresa-zigilua, autonomoaren ziurtagiria edo gailuaren ziurtagiria.

Hirugarrenei edo hartzaileei fakturazioa egiten dieten enpresen kasuan ezin izango da zerbitzariko gailuaren ziurtagiria erabili.

4. 2. 3. Bezero-sinadura eta zerbitzari-sinadura erabil daitezkeen arkitekturak.

Arkitektura banatuetan sinadura bezeraoan zein zerbitzarian egin daiteke, kasuan kasuko murrizketak kontuan edukiz.

Esaterako, web aplikazioetan:

– Aplikaziora sartzeko nabigatzaileak instalatuta duen gailuan egingo litzateke sinadura bezeraoan, eta sinadura duten arkitekturen murrizketak aplikatuko lirateke.

– Zerbitzariko sinadura nabigatzailea sartzen den urrutiko zerbitzarian egingo litzateke, eta kasu horretan zerbitzariko sinadura duten arkitekturen murrizketak aplikatuko lirateke.

Arkitektura batek ezin du eman aukera aldi berean bezero-sinadurak eta zerbitzari-sinadurak egiteko. Baliagarri dauden arkitekturetako bat hautatu behar da.

5. Elkarrekotasun-klausula.

Elkarrekotasun gisa, eranskin honetan jasotako sinadura elektronikoko zehaztapenak betetzat joko dira zergadunek Arabako Foru Aldundiak edo Bizkaiako Foru Aldundiak ondorio horietarako ezarritako zehaztapenak betetzen dituztenean.

IV. ERANSKINA.¹

TICKETBAI FITXATEGIEN ZEHAZTAPEN TEKNIKO ETA FUNTZIONALAK ETA FITXAGIAK BIDALTZEKO BEHARKIZUNAK

1. Xedea.

Eranskin honek ezartzen du zer beharkizun tekniko behar diren Gipuzkoako Foru Aldundiaren TicketBAI fitxategiak jasotzeko zerbitzuak haiekin lotutako mezuak jaso ditzan.

REST zerbitzuak erabiliko dira, informazioa denbora errealean ematea ahalbidetzeko.

2. Funtzionamenduko eskema orokorra.

TicketBAI fitxategiak telematikoki bidaliko dira, zehazki, XML mezuen trukean oinarritutako REST zerbitzuen bitartez. Mezu guztiei modu sinkronizatuan erantzungo zaie.

TicketBAI fitxategia jasotzen denean, balioztapen prozesu bat egingo da automatikoki, hala maila sintaktikoan (XML formatua eta egitura) nola negozio erregelen mailan, eta erantzun bat itzuliko da (XML mezu bat):

- TicketBAI fitxategiak ez badu balioztapenetako bat gainditzen, erantzunean zehaztuko da fitxategia oker jaso dela eta zer errore gertatu den adieraziko da.
- TicketBAI fitxategiak balioztapena gainditzen badu, fitxategia ongi jaso dela adieraziko da erantzunean.

Fitxategia behar bezala jaso eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundiaren sistema informatikoak balioztapen gehiago egin ahal izango ditu jasotako informazioari buruz, modu asinkronoan. Balioztapen osagarri horietan erroreak detektatuz gero, zergadunari jakinaraziko zaizkio beste bitarteko batzuk erabilia.

Bi mezu mota definituko dira: Bata TicketBAI altako fitxategiak bidaltzeko, eta beste bat TicketBAI baliogabetze fitxategiak bidaltzeko.

Erantzunean informazio hau ere etorriko da: TicketBAI Kodea, TicketBAI fitxategia jaso den ordua, eta Egiaztapen Kode Seguru bat. Erantzunean TicketBAI Koderik ez agertzeak esan nahi du ezinezkoa izan dela zehaztea zein den TicketBAI altako fitxategian jasotako informazioaren TicketBAI Kodea.

2.1 Mezu baten egoera globalen deskribapena.

2.1.1 Jasota.

Bidalitako TicketBAI fitxategiak emaitza hori duenean, horrekin adierazi nahi da TicketBAI fitxategiak gainditu dituela jasotze mailan definitu diren gutxieneko

¹ Eranskin hau urtarrilaren 25eko 40/2022 Foru Aginduaren artikulua bakarrik aldatu du. Aipatutako foru aginduak TicketBAI fitxategiak zuzentzeko zerbitzuen beharkizunak, prozedura eta zehaztapen tekniko eta funtzionalak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 16/2022 Foru Aginduaren I. eta III eranskinak ordezkatzeko ditu. Foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu egun berean jartzen da indarrean (2022/01/27ko GAO), eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen ditu ondorioak.

balioztapenak, hala sintaktikoak nola negoziokoak. Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren sistema informatikoan erregistratu da.

TicketBAI fitxategiarekin lotutako balioztapen abisuak badaude, zerbitzuaren erantzunean jakinaraziko dira, edo, bestela, geroago beste kanal bat erabilita. A priori, abisu horiek ez dakarte berekin mezua errefusatzea, baina bidaltzaileak kontuan hartu egin behar ditu hurrengo bidalketetarako.

2.1.2 Errefusatua.

Honek esan nahi du TicketBAI fitxategiak ez duela gainditu jasotze mailan definitutako gutxieneko balioztapenetako bat, eta ez dituela betetzen sisteman sartzeko behar diren gutxieneko beharkizunak.

Hainbat arrazoi egon daitezke horretarako:

- Jaso den TicketBAI fitxategiaren egitura ez datorrela bat definitu denarekin (ez ditu betetzen balioztapen estrukturalak) edo, bestela, TicketBAI fitxategiak errore sintaktikoak dituela. Erantzunak adierazten du egiturak balioztapen errore bat eman duela.
- TicketBAI fitxategiaren edukian ez dituela betetzen gutxieneko balioztapen jakin batzuk. Adibidez, TicketBAI altako fitxategi bat bidaltzen den kasuan:
- Ziurtagiri ez-homologatu edo errebokatu bat erabili da.
- Ez dauka xehetasun lerroei buruzko informaziorik.
- Ez dauka TicketBAI Kodea kalkulatzeko behar den informazioa.

2.2 Errefusatutako TicketBAI fitxategien tratamendua.

Errefusatutako TicketBAI fitxategiak ez dira erregistratuko Gipuzkoako Foru Aldundiaren sistema informatikoan.

Behin erroreak zuzendu ondoren, TicketBAI fitxategiak bidali beharko dira berriro.

2.3 Jasotako TicketBAI fitxategien tratamendua.

TicketBAI fitxategiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren sistema informatikoan erregistratu dira, eta edukia balioztatzeko hurrengo prozesuetara pasatzen dira.

Erroreak detektatzen badira, zergadunari jakinaraziko zaizkio. Detektatutako arazoak geroagoko bidalketetan zuzendu beharko dira.

3. Estandarrak eta beharkizunak.

3.1 Sarrera.

Mezuaren edukia XML fitxategi bat da. XML fitxategiak egitura desberdinetan deskribatzen diren erregelak bete behar ditu (formatuei, derrigortasunari eta abarri buruzko erregelak), baina, edozein kasutan, datuak prestatu eta aurkezten dutenek jatorrian bermatu behar dute, beti, datuen koherentzia.

Egitura bakoitza datu multzotan antolatuta dago, non datuen elementuak dauden. Haiek bloke logikoak osatzeko moduan taldekatu dira, egitura bakoitzaren eremuarekin koherentzia izan dezaten.

REST zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten TicketBAI softwareak ziurtagiri elektronikoaren bidez autentifikatu beharko dira bezeroaren aldetik. Beraz, zerbitzuak erabili ahal izateko, beharrezkoa da informazioa bidaltzeko erabiltzen den fakturazio gailuan Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektroniko bat instalatuta

edukitzea. Ziurtagiri hori pertsona fisikoarena, entitatearen ordezkariarena, gailuarena, zigilu elektronikoa edo autonomoarena izan daiteke.

Zergadun baten TicketBAI fitxategia haren ziurtagiriaren bidez bidali daiteke, edo, bestela, aukera hauetako edozein erabiliz:

- Behar bezala baimendutako lege edo zerga ordezkariaren ziurtagiria.
- Kolaboratzaile sozialaren ziurtagiria.
- Gailuaren ziurtagiria.

Gailuaren ziurtagiriaren kasuan, bidalketak egin ondoren, zergadunak baieztatu beharko du gailuak baduela bere izenean mezuak bidaltzeko baimena. Baimena baieztatzeko, zerbitzu bat gaituko da egoitza elektronikoan.

Kolaboratzaile sozialaren kasuan, foru agindu honetan xedatutakoa bete beharko du: 16/2022 Foru Agindua, urtarrilaren 18koa, TicketBai betebeharra dela eta, TicketBai fitxategien bidalketan gizarte lankidetzaren terminoak onartzen dituenak.

Faktura egiten duenaren IFZk zergadunarena izan behar du, eta Gipuzkoako Foru Ogasuneko zergadunen datu basean alta emanda egon behar du.

Fitxategia bidaltzeko erabiltzen den ziurtagiria eta bidalketaren xede den TicketBAI fitxategia elektronikoki sinatzeko erabilitakoa desberdinak izan daitezke.

3.2 Erabilitako estandarrak.

RESTful web zerbitzuak webean APIak edo programazio interfazeak azaltzeko diseinatu daude. Helburua da errendimendu, eskalabilitate eta malgutasun handiagoa ematea ohiko web zerbitzuek baino, bezeroei aukera emanez datu eta baliabideak aurreikusi daitezkeen URLen bidez eskuratzeko. Horrelaxe komunikatuko dira elkarrekin informazio sistemak (herritar/enpresarena eta Foru Ogasunarena). Gertatzezko estandarrak RESFful zerbitzuak garatzeko erabiliko dira.

TicketBAI fitxategien egitura XML eskemetan oinarritzen da, 2004ko urriaren 28ko W3C gomendioa erabilita (lotura: <http://www.w3.org/TR/xmlschema-0>), <http://www.w3.org/2001/XMLSchema> namespace-an erreferentziatua

Zerbitzu bakoitzak sarrerako mezu bat eta haren irteerako erantzuna definituta izango ditu bakoitzari dagokion XSD eskemaren bidez.

4. Zerbitzuen definizioa.

4.1 TicketBAI altako fitxategiak jasotzeko zerbitzua.

Zerbitzu honen bitartez, TicketBAI altako fitxategi bati sarrera eman dakioke Gipuzkoako Foru Ogasunaren sisteman.

4.1.1 Bidaltzeko bitartekoa.

Ingurunea: Internet.


Protokoloa: HTTPS 1.1 (TLS 1.1 edo goragokoa)

Bidaltzeko modua: POST.

Mezuak: Rest Service

Kodifikazioa: UTF-8. Sarrera XML bat da, jarraian azaltzen den XSD sarrera eskemak dituen zehaztapenera egokitu behar dena.

TicketBAI altako fitxategia da, foru agindu honen I. eranskinean deskribatutako formatua eta egitura dituen.



Eskatzen diren http goiburuak: Content-Type: application/xml;charset=UTF-8

Ziurtagiria: REST zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten TicketBAI softwareak ziurtagiri elektronikoaren bidez autentifikatu beharko dira bezeroaren aldetik. Beraz, zerbitzuak erabili ahal izateko, beharrezkoa da informazioa bidaltzeko erabiltzen den fakturazio gailuan Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektroniko bat instalatuta edukitzea. Ziurtagiri hori pertsona fisikoarena, entitatearen ordezkariarena, gailuarena, entitatearen zigilu elektronikoarena edo autonomoarena izan daiteke.

Zerbitzuaren helbidea: <https://tbai-z.egoitza.gipuzkoa.eus/sarrerak/alta>


4.1.2. Erantzuna:

Ingurunea: Internet.

Protokoloa: HTTPS.

Mezuak: Rest Service.

Kodifikazioa: UTF-8. Irteera XML bat da, UTF-8 kodifikazioa duena. XML-a jarraian azaltzen den XSD irteera eskemak duen zehaztapenera egokitu behar da.



Sinadura: erantzun mezua ez doa sinatuta.

Jarraian, adibide gisa erakusten da zein izango litzatekeen XML erantzuna eskema hori arrakastaz aplikatu ondoren:

```
<ns2:TicketBaiResponse xmlns="http://uri.etsi.org/01903/v1.3.2#"
xmlns:ns2="http://ticketBai.eus">
```

```

    <Salida>
      <IdentificadorTBAI>TBAI-00000006Y-251019-btFpwP8dcLGAF-
237</IdentificadorTBAI>
      <FechaRecepcion>01-03-2020 12:31:34</FechaRecepcion>
      <Estado>00</Estado>
      <Descripcion>Recibido</Descripcion>
      <Azalpena>Jasota</Azalpena>
      <CSV>TBAI33076dde-180d-4484-88ff-094ba2e93587</CSV>
    </Salida>
  </ns2:TicketBaiResponse>

```

Egiaztapen kode seguruak jasota uzten du fitxategia Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa aurkeztu dela.

Jarraian, adibide gisa erakusten da zein izango litzatekeen XML erantzuna eskema hori aplikatu eta balioztapen erroreak eman ondoren:

```

<ns2:TicketBaiResponse xmlns="http://uri.etsi.org/01903/v1.3.2#"
xmlns:ns2="http://ticketBai.eus">
  <Salida>
    <IdentificadorTBAI>TBAI-00000006Y-251019-btFpwP8dcLGAF-
237</IdentificadorTBAI>
    <FechaRecepcion>01-03-2020 12:31:34</FechaRecepcion>
    <Estado>01</Estado>
    <Descripcion>Rechazado</Descripcion>
    <Azalpena>Baztertua</Azalpena>
    <ResultadosValidacion>
      <Codigo>002</Codigo>
      <Descripcion>El mensaje no cumple el esquema XSD</Descripcion>
      <Azalpena>Mezuak ez du XSDaren egitura betetzen</Azalpena >
    </ResultadosValidacion>
  </Salida>
</ns2:TicketBaiResponse>

```

4.1.3. Emaidza kodeak

Erantzunaren **egoera** elementuan jasotako egoera kode globalak aukera hauek ditu:

BALIOA	DESKRIBAPENA	ESANAHIA
00	Jasota	TicketBAI altako fitxategia behar bezala jaso da.
01	Errefusatuta	TicketBAI altako fitxategiak erroreak ditu, eta ezin da jaso.

Bidalketa errefusatu bada edo oker onartu bada, erantzunean errore zerrenda bat adierazi daiteke, kodifikazio honen arabera:

Kodea	Deskribapena
Mezua errefusatzeko dakarten erroreak	
001	Bidaltzailearen ziurtagiria okerra (errebokatua edo ez-homologatua)
002	TicketBAI altako fitxategiak ez du betetzen XSD eskema.
003	TicketBAI altako fitxategiak ez du xehetasun lerrorik
004	Derrigorrezko datua falta da edo datua ez da zuzena [datua]
005	TicketBAI fitxategia sisteman erregistratuta dago jada
006	Jasotze zerbitzua ez dago erabilgarri. Egin berriro eragiketa geroago
007	Bidaltzailearen ziurtagiria ez da baliagarria fakturaren egilearentzat
017	Mezuaren tamaina ez da zuzena: baimendutako tamaina gainditu da
Abisuak	
008	Errorea sinadura egiaztatzean
010	Litekeena da kateamendu errorea gertatzea
011	Errorea negozioa balioztatzean [datua]
012	Errorea TicketBAI softwarearen alta-inskripzioa egiaztatzean
013	Bidaltzailearen fakturazio gailua ez dago erregistratuta
015	Bidaltzailearen ziurtagiria iraungita dago. Hurrengo bidalketarako, berriro behar du
016	Sinatzailearen ziurtagiria iraungita dago. Hurrengo bidalketarako, berriro behar du

4.2. TicketBAI baliogabetze fitxategiak jasotzeko zerbitzua.

Zerbitzu honen bitartez sarrera eman dakioko TicketBAI baliogabetze fitxategi bati.

4.2.1. Bidaltzeko bitartekoa.

Ingurunea: Internet.


Protokoloa: HTTPS 1.1 (TLS 1.1 edo goragokoa)

Bidaltzeko modua: POST.

Mezuak: Rest Service

Kodifikazioa: UTF-8. Sarrera XML bat da, jarraian azaltzen den XSD sarrera eskemak dituen zehaztapenera egokitu behar dena.

TicketBAI baliogabetze fitxategien egitura eta formatua foru agindu honen II. eranskinean zehazten dira.



Eskatzen diren http goiburuak: Content-Type: application/xml;charset=UTF-8

Ziurtagiria: Web zerbitzuetara informazioa bidaltzen duten TicketBAI softwareak ziurtagiri elektronikoaren bidez autentifikatu beharko dira bezeroaren aldetik. Beraz, zerbitzuak erabili ahal izateko, beharrezkoa da TicketBAI fitxategiak bidaltzeko erabiltzen den fakturazio gailuan Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektroniko bat instalatuta edukitzea.

Zerbitzuaren helbidea: <https://tbai-z.egoitza.gipuzkoa.eus/sarrerak/baja>


4.2.2. Erantzuna:

Ingurunea: Internet.

Protokoloa: HTTPS.

Mezuak: Rest Service.

Kodifikazioa: UTF-8. Irteera XML bat da, UTF-8 kodifikazioa duena. XML-a jarraian azaltzen den XSD irteera eskemak duen zehaztapenera egokitu behar da.



Sinadura: erantzun mezua ez doa sinatuta.

Jarraian, adibide gisa erakusten da zein izango litzatekeen XML erantzuna eskema hori arrakastaz aplikatu ondoren:

```

<ns2:TicketBaiResponse xmlns="http://uri.etsi.org/01903/v1.3.2#"
xmlns:ns2="http://ticketBai.eus">
  <Salida>
    <IdentificadorTBAI>TBAI-00000006Y-251019-btFpwP8dcLGAF-
237</IdentificadorTBAI>
    <FechaRecepcion>01-03-2020 12:30:11</FechaRecepcion>
    <Estado>00</Estado>
    <Descripcion>Recibido</Descripcion>
    <Azalpena>Jasota</Azalpena>
    <CSV>TBAI33076dde-180d-4484-88ff-094ba2e93587</CSV>
  </Salida>
</ns2:TicketBaiResponse>

```

Egiaztapen kode seguruak jasota uzten du fitxategia Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan aurkeztu dela.

Jarraian, adibide gisa erakusten da zein izango litzatekeen XML erantzuna eskema hori aplikatu eta balioztapen erroreak eman ondoren:

```

<ns2:TicketBaiResponse xmlns="http://uri.etsi.org/01903/v1.3.2#"
xmlns:ns2="http://ticketBai.eus">
  <Salida>
    <FechaRecepcion>01-03-2020 12:25:52</FechaRecepcion>
    <Estado>01</Estado>
    <Descripcion>Rechazado</Descripcion>
    <Azalpena>Baztertua</Azalpena>
    <ResultadosValidacion>
      <Codigo>001</Codigo>
      <Descripcion>Certificado remitente incorrecto (revocado o no
homologado)</Descripcion>
      <Azalpena>Bidaktzailearen ziurtagiria okerra (errebokatua edo ez
homologatua)</Azalpena>
    </ResultadosValidacion>
  </Salida>
</ns2:TicketBaiResponse>

```

4.2.3. Eraitza kodeak.

Erantzunaren **egoera** elementuan jasotako egoera kode globalak aukera hauek ditu:

BALIOA	DESKRIBAPENA	ESANAHIA
00	Jasota	Baliogabetze fitxategia behar bezala jaso da.
01	Errefusatuta	Baliogabetze fitxategia ez da jaso.

Fitxategia ez bada behar bezala jasotzen, erantzunak errore zerrenda bat erakutsi dezake, kodifikazio honen arabera:

Kodea	Deskribapena
Mezua errefusatzeko dakarten erroreak	
001	Bidaltzailearen ziurtagiria okerra (errebokatua edo ez-homologatua)
002	TicketBAI baliogabetze fitxategiak ez du betetzen XSD eskema.
004	Derrigorrezko datua falta da edo datua ez da zuzena [datua]
006	TicketBAI baliogabetze fitxategiak jasotzeko zerbitzua ez dago erabilgarri. Egin berriro eragiketa geroago.
007	Bidaltzailearen ziurtagiria ez da baliagarria fakturaren egilearentzat
017	Mezuaren tamaina ez da zuzena: baimendutako tamaina gainditu da
018	Baliogabetzen den alta fitxategia ez dago sisteman
019	Alta fitxategia lehenago baliogabetu da
Abisuak	
008	Errorea sinadura egiaztatzean
012	Errorea TicketBAI softwarearen alta-inskripzioa egiaztatzean
013	Bidaltzailearen fakturazio gailua ez dago erregistratuta
015	Bidaltzailearen ziurtagiria iraungita dago. Hurrengo bidalketarako, berriro behar du
016	Sinatzailearen ziurtagiria iraungita dago. Hurrengo bidalketarako, berriro behar du

5. BESTE GOGOETA BATZUK.

5.1. Erroreak eskaerak prozesatzean

HTTP eskaera prozesatzean erroreak gertatzen badira, HTTP protokolo estandarrean deskribatzen den eran komunikatu beharko dira.

Laburpen moduan, eskaera bati erantzutean kasu hauek gerta daitezke:

Bezero aldeko emaitza	Ekintza
Erantzun bat jasotzen da, espero den XML erantzun formatua duena.	Eskaera prozesatuta. Erantzuna aztertu behar da, eragiketaren emaitza zehazteko.
Erantzun bat jasotzen da, formatura egokitu gabeko formatu okerra duena.	Errorea eskaeraren prozesuan. Eskaera errepikatu behar da.

5.2. Karaktere berezien ihesari buruzko argipena.

Baldin eta XML elementu baten balio batean ondorengo karaktereetako bat jarri behar bada, XML entitate hauen bidez adieraziko da ihes karakterea:

Karakterea	Ihes karakterea
&	&
<	<
>	>